# KALEKO EMANALDI TXIKIAK: musika, mimika, antzerkia....
# ACTUACIONES MENORES EN LA CALLE: música, mímica, teatro....

## GOI DENBORALDIA / TEMPORADA ALTA

### Goi denboraldia

Aste Santua: martxoaren 15etik – apirilaren 30era

Udara: ekainaren 15etik – irailaren 15era

Gabonak: abenduaren 15etik – urtarrilaren 15era

### Goi denboraldiko baimenak

Goi denboraldian, jende asko ibiltzen den eremu babestu batzuetan aritzeko baimena ematen da. Horretarako, ordu bateko txandak ematen dira, adierazitako puntu batzuetan aritzeko.

Hala, 13 puntu daude izendatuta ondorengo eremu hauetan:

- Kontxako pasealekuan (Antiguako tuneletik Udaletxeraino),
- Zurriola pasealekuan (Kursaaleko garajeko sarreraren eta Sagues artean) eta
- Bulebarrean

(Ikus beherago “Emanaldietarako puntuen planoa”)

Parte Zaharrean galarazita daude emanaldi mota guztiak.

Toki jakin horietan jarduteko baimenarekin batera, hiriko gainerako tokietan libre aritzeko baimena ere ematen da, beti ere baldintza jakin batzuetan jardutekoatan.
(Ikus beherago, “Erantzukizunpeko adierazpena duten saioak egiteko baldintzak”).

### Emaldiak egiteko baldintza nagusiak

Orduak: 11:00 - 14:00 eta 16:00 - 22:00

Ez dago ez danborrik, ez perkusio elementurik ez eta 10 W baino gehiagoko anplifikadorerik erabiltzerik.

### Baimenak emateko arauak

- Emanaldia edo saioa egiten duen taldea osatzen duten pertsona guztiak dira baimenaren titularrak.

### Cuándo es temporada alta:

Semana Santa: 15 marzo – 30 abril

Verano: 15 junio – 15 septiembre

Navidades: 15 diciembre – 15 enero

### Autorizaciones en temporada alta

En temporada alta, se da autorización para actuar en zonas restringidas o de mayor afluencia. Para ello, se asignan turnos específicos de 1 hora y en puntos señalados.

Estas zonas, donde hay fijados 13 puntos de actuación, son:

- el paseo de la Concha (desde el túnel del Antiguo hasta el Ayuntamiento),
- el paseo de la Zurriola (entre la entrada del garaje del Kursaal y Sagües) y
- el Bulevar

(Ver abajo “Plano puntos de actuación”)

En Parte Vieja se prohíbe cualquier actuación.

Junto con la autorización para actuar en las zonas restringidas, se autoriza la libre actuación en el resto de la ciudad, siempre que se cumplan unas condiciones específicas.
(Ver abajo “Condiciones actuaciones con declaración responsable”).

### Normas generales para las actuaciones

Horario: 11:00 - 14:00 y 16:00 - 22:00

No se pueden emplear tambores, elementos de percusión o amplificadores de más de 10W.

### Normas que rigen la concesión de autorizaciones

- Se consideran titulares de la autorización todas las personas que componen el grupo actuante.

13423n II

- Eskaera egin ondorengo 30 egunerako bakarrik eska daiteke data eta ezingo da beste eskaerarik egin 30 egun horiek pasa arte.
- Baimendutako txandak (tokia, eguna eta ordua) 15 eguneko denboraldiaren barruan izan behar dira.
- 15 eguneko denboraldi horretan, soilik 5 egunetan izaten dira txandak, 4 txanda egunean, inoiz ez punt berean.
- Baimendutako 15 eguneko denboraldi horretan, hiriko gainerako tokietan libre aritu daiteke, hartarako jarrita diren baldintzetan.
- Baimenekin batera, identifikazio fitxa bat egiten da. Ikusteko moduko tokian eduki behar da hura saio guztietan, han jarriko baititu espedientearen datuak, baimendutako pertsona kopurua eta baimendutako epea.
- Emandako baimenak ez dago aldatzerik. Hala ere, baimen guztia deuseztatzeko modua izango da, baimendutako epea hasi baino lehen.

- No se puede solicitar ninguna fecha más allá de 30 días posteriores a la solicitud y no se podrá realizar una nueva solicitud hasta transcurrido dicho plazo.
- Los turnos específicos autorizados (lugar, día y hora) deben estar comprendidos en un período de 15 días.
- En este período de 15 días, se autorizan turnos únicamente durante 5 días y cada día 4 turnos en distintas ubicaciones.
- Durante este período de 15 días de autorización se puede actuar libremente en el resto de la ciudad en las condiciones fijadas para ello.
- Junto con las autorizaciones se emite una ficha identificativa que se deberá mostrar en lugar visible en todas las actuaciones, donde figuran los datos del expediente, el número de personas autorizadas y el período autorizado.
- Las autorizaciones concedidas no podrán ser modificadas. Se podrá, sin embargo, anular toda la autorización antes del inicio del período autorizado.

## **BEHE DENBORALDIA /** TEMPORADA BAJA

### Behe denboraldia

Urtarrilaren 16tik – martxoaren 14ra

Maiatzaren 1etik – ekainaren 14ra

Irailaren 16tik – abenduaren 14ra

### Behe denboraldiko baimenak

Behe denboraldian, ez da Udalaren lizentziarik izan behar kalean emanaldi txikiak egiteko; aldez aurretik erantzukizunpeko adierazpena egin eta hartarako bete behar diren baldintzak betetzea da nahikoa.

Hiriko toki hauetan ez beste toki guztietan aritu daiteke:

- Parte Zaharrean, galarazita baitaude emanaldi mota guztiak, eta
- Bulebarreko eta Alderdi Ederreko toki babestuetan; 4 puntu baitaude jarrita horietan saioak egiteko.

(Ikus behean “Emanaldietarako puntuen planoa”)

### Cuándo es temporada baja:

16 enero – 14 marzo

1 mayo – 14 junio

16 septiembre – 14 diciembre

### Autorizaciones en temporada baja

En temporada baja, las actuaciones menores en la calle, se realizan en condiciones específicas que no requieren licencia municipal sino declaración responsable previa.

Se puede actuar libremente en toda la ciudad excepto en:

- la Parte Vieja, donde se prohíbe cualquier actuación y
- en las zonas restringidas del Bulevar y Alderdi Eder, donde hay señalados 4 puntos concretos para actuaciones.

(Ver abajo “Plano puntos de actuación”)

### Emaldiak egiteko baldintza nagusiak

Orduak: 11:00 - 14:00 eta 16:00 - 22:00

Ez dago ez danborrik, ez perkusio elementurik ez eta 10 W baino gehiagoko anplifikadorerik erabiltzerik.

Erantzukizunpeko adierazpena eginda egiten diren saioak gehienez ere 2 pertsonak egin ditzakete, distantzia eta iraupen baldintza jakin batzuetan egin ere.

Ikus “Erantzukizunpeko adierazpena duten saioak egiteko baldintzak”.

### Normas generales para las actuaciones

Horario: 11:00 - 14:00 y 16:00 - 22:00

No se pueden emplear tambores, elementos de percusión o amplificadores de más de 10W.

Las declaraciones responsables se limitan, a actuaciones de un máximo de 2 personas realizadas en unas condiciones de distancias y duración determinadas.

Ver mas abajo “Condiciones Actuaciones con declaración responsable”.

### Erantzukizunpeko adierazpenak onartzeko eta saioak egiteko arauak

- Erantzukizunpeko adierazpenek behe denboraldiko 3 epeetarako bakarrik balio dute.
- Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, identifikazio fitxa bat egiten da. Ikusteko moduko tokian eduki behar da hura saio guztietan, han jarriko baititu espedientearen datuak eta baimendutako epea.

### Normas que rigen la admisión de declaraciones responsables y su ejecución

- Las declaraciones responsables se limitan en tiempo a cada uno de los 3 períodos de la temporada baja.
- Junto con las declaraciones responsables se emite una ficha identificativa que se deberá mostrar en lugar visible en todas las actuaciones, donde figuran los datos del expediente y el período autorizado.

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA DUTEN SAIOAK EGITEKO BALDINTZAK
## CONDICIONES ACTUACIONES CON DECLARACIÓN RESPONSABLE

| | |
|---|---|
| Interesdunak adierazten du Donostiako kaleetan musika jotzen, abesten edota emanaldi artistikoetan arituko dela eta **honako baldintza** hauetan arituko dela: | La persona interesada declara que actuará en las calles de San Sebastián tocando música, cantando y/o participando en actuaciones artísticas, de acuerdo con las siguientes **condiciones:** |
| **Lekurari buruzko baldintzak** | **Lugar** |
| - Plaza, pasealeku eta espazio zabaletan aritzea —eta ez kale artean—, betiere etxebizitza, denda, bulego edo terrazetatik 20 metrora baino gehiagora. | - Actuar en plazas, paseos y espacios amplios y no entre calles, siempre a más de 20 metros del emplazamiento de viviendas, comercios, oficinas o terrazas. |
| - Emanaldietarako eremu babestuak errespetatzea eta hietan espresuki markatutako puntuetan aritzea. | - Respetar los espacios restringidos para las actuaciones y las ubicaciones concretas estipuladas para ello en zonas restringidas. |
| - Distantzia jakin bat gordetzea Udalak antolatu edo baimendutako ekitaldietatik, haiek ez oztopatzeko. | - Guardar cierta distancia de los actos organizados o autorizados por el Ayuntamiento para no interferir en ellos. |
| - Beste artista batengandik 75 metrora baino gutxiagora ez jartzea. Arrazoi horregatik liskarrik sortzen bada, bi artistek alde egin beharko dute tokitik. | - Respetar una distancia mínima de 75 metros con respecto a otro u otra artista. En el caso de que se produzca alguna disputa por este hecho, se abandonará, junto con la otra parte, el lugar. |
| - Oinezkoen ibilbidea ez oztopatzea. Gutxienez, 2 metroko tartea utziko da | - No obstaculizar la circulación peatonal, dejando al menos 2 metros desde barandilla, murete o |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | pasealekua mugatzen duten baranda, hormatxo edo fatxadetatik. | | fachada que limite el paseo. |
| - | Ezin da erabili hiri altzaririk, eta gutxienez metro bateko tartea utzi behar da bankuetatik edo herritarrek atseden hartzeko jarritako beste edozein elementutatik. | - | Tampoco se podrá usar el mobiliario urbano y se mantendrá al menos una distancia de 1m respecto a bancos o cualquier otro elemento destinado al descanso del ciudadano o ciudadana. |
| - | Ez da egingo ikuslearentzat edo artistarentzat berarentzat arriskutsu izan daitekeen ekintzarik. | - | No realizar ninguna acción que suponga un riesgo tanto para el espectador/a como para el propio artista. |
| - | Musikarik gabeko emanaldiak, hala nola antzerkiak eta mimoak (mozorroak ez dira artista jarduntzat jotzen), eremu babestutik kanpo egin daitezke kale artean edo 20 metroko distantzia gorde gabe, betiere jendearen joan-etorria edo etxeetako eta dendetako sartu-irtenak oztopatzen ez badira. | - | Las actuaciones sin música como pueden ser teatros o mimos (los disfraces no se consideran actuaciones artísticas) fuera de la zona restringida pueden ser realizadas entre calles o sin respetar la distancia de 20 metros, siempre que no obstaculicen el tránsito o el acceso a viviendas y comercio. |
| **Ordutegia eta egonaldia** | | **Horario y tiempo de estancia** | |
| - | 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:00etara bitarteko tartean arituko naiz. | - | Las actuaciones se realizarán entre las 11:00 y las 14:00 y entre las 16:00 y las 22:00 horas |
| - | Ezin da leku berean ordubete baino gehiagoz arituko eta denbora hori pasatuta gutxienez 75 metroko tartean egokituko da leku berria | - | No se podrá estar durante más de 1 hora en el mismo emplazamiento. Pasado ese tiempo, se trasladará a una distancia mínima de 75 metros. |
| **Laguntzaileak eta erabili beharreko elementuak** | | **Acompañantes y elementos a utilizar** | |
| - | Aritu ahal izango da beste pertsona batekin batera, betiere, adin nagusikoa bada. | - | Podrá actuar junto con otra persona, siempre que sea mayor de edad. |
| - | Ez da erabiliko danbor edo perkusio elementurik. | - | No hará uso de tambores ni de ningún otro elemento de percusión. |
| - | Ez da erabiliko 10 W-etik gorako anplifikadorerik, eta ezta elektrizitate sorgailurik ere. | - | No utilizará amplificadores de más de 10 W ni generadores de electricidad. |
| **Beste baldintza batzuk** | | **Otras condiciones** | |
| - | Udaltzaingoak baldintza hauek betearazteko ahalmena du, bai eta baimen honi lotutako emanaldiak beste ekitaldi batzuekin bateragarri egitekoa ere. | - | La Guardia Municipal tiene la facultad para hacer cumplir estos requisitos y compatibilizar las actuaciones asociadas a esta autorización con otros eventos. |
| - | Era berean, interesdunak hitzematen du dagoen tokitik joango dela, udaltzainek hala agintzen badiote. | - | Asimismo, se compromete a abandonar el lugar en el caso de que la Guardia Municipal así lo ordene. |

**EREMU BABESTUAK ETA EMANALDIETARAKO PUNTUAK**
ZONAS RESTRINGUIDAS Y PUNTOS DE ACTUACIÓN


P01: Alderdi Eder


P02: Alderdi Eder


P03: Bulebar


P04: Bulebar


P05: Ondarreta Tunela


P06: Kontxa Tunela


P07: Kontxa Pasealekua


P08: Vinuesa Plaza

| | |
|---|---|
|  |  |
| P09: Cervantes Plaza | P10: Kurssal |
| |  |
| P11: Zurriola Pasealekua | P12: Zurriola Pasealekua |
|  |  |
| | P13: Sagues |


P13
P13
Zurriola
P12
P10
P11
P04
P03
Bulebarra
P01
P02
Alderdi eder
P09
Kontxa
P05
P06
P07
P08